

### 31. INFORMAZIO FITXA LABARREKO ZIDORRA (GR 123 ALDAERA, PORTU ZAHARRA-SOPELANA TARTEA)

#### KOKALEKUA

##### Udalerria

Sopelana

Getxo

##### Udalerraren kod.

086

044

##### Eskualdea

Plentzia-Mungia

Bilboaldea

##### Kartografia

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

##### Orriak

03744

03745

03752

03753

03761

#### FITXA TEKNIKOA

##### Homologatua

EZ

##### Gutxi gorabeherako denbora

2 ordu

##### Gehieneko desnibela (m)

75

##### Luzera (km)

8

##### Zailtasuna

Erraza

##### Trazatu mota

Lineala

##### Ibilbidearen hasiera

Algortako portu zaharra


##### Ibilbidearen amaiera

Larrabasterra

##### Interesa

Paisaia, natura, geologia, kultura

##### Ibilbidearen profila



## Mapa/Krokisa



### **Nola Iritsi**

Getxora joateko (Bilbotik 15 km), zenbait aukera dago. Metroak sei geraleku ditu udalerrian, eta gainera, autobus geltokiak ere badira. Autoan joateko, Leioa/Getxorako A-8 autobidea har daiteke; hori Gurutzetaren parean utzi eta N-637 hartuko dugu. Errepide horretatik jarraituko dugu errotanda handi bateraino, eta bertan, Neguri zeharkatuz, Ereaga hondartzara joango gara; horren amaieran Zubi Zaharra dago eta bertan hasten da geure ibilbidea.

### **Deskribapena**

Algortako Zubi Zaharretik Arrigunaga hondartzara joango gara, Usategi parkea zeharkatuz eta labarraren ondoko bidezidorrari jarraituz. Hondartza horren muturretik Galea lurmuturreko labarretara iritsiko gara, Aixerrota errotaren aurrean hasten diren labarretara. Labarretik joango gara, Printzearen Gaztelutik edo La Galea Gotorlekutik igarota, eta horrela, Galea lurmuturreko aparkalekura helduko gara; bertan, harrizko baldosekin egindako bidea hasten da eta bide hori Aixerrotaraino luzatzen ari dira. Ibilaldi atseginaren ostean, Gorrondatxe-Azkorri hondartzaren goialdera iritsiko gara; bertatik, aurrera jarraituko dugu, bunker zahar baten ondotik igarota, Barinatxe hondartzaraino (Sopelana udalerria). Hondartza horren eta Arrietara hondartzaren arteko aparkalekutik joan eta Larrabasterra auzora jaisten den errepidea hartuko dugu.

## **IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK**

### **Trazatua**

Ibilbidearen zatirik handiena harrizko baldosetatik doa, eta zati batzuk hiri-lurzorutik, errepidetik edo bidezidorretik dira.

### **Gurpil-aulkietarako gauza**

Galeatik (laster Aixerratik) Sopelanako hondartzetako aparkalekura.

### **Norabideko seinaleztapena**

Ibilbideak ez dauka norabideko seinaleztapenik, baina GR 123-Bizkaiko Itzulia bidearen aldaeratzat seinaleztatuko da; beraz, marka zuriak eta gorriak jarriko dira.

### **Informazioko seinaleztapena**

Galeako aparkalekua igaro ondoren, faunari buruzko interpretazio panela dago.

## **ARGAZKIAK**

### **Ereaga Portu Zaharretik ikusita**



### **Ereagako turismo bulegoa**



**Portu Zaharreko eskulturak**



**Galea lurmuturreko itsasargia**



**Galeako kai-muturra**





## BALIABIDEAK

### Ereaga

Ereagako zona baliabide interesgarria da; izan ere, hondartza bera ez ezik, Europako estilo desberdinetan eraikitako jauregiek nahiz luxuzko etxeek (XIX. eta XX. mendeetakoak) osaturiko monumentu multzo interesgarria ere badauka.



---

### Portu Zaharra

Algortan eraikitako lehenengo portua da; izatez ere, arrantzale-ontziak eta portuko gidariak lehorreratzeko lekua behar zen. Malda handiko kale estuek osaturiko gunea da; koloreekin margoturiko zurezko etxetxoak ditu eta hor lehen arrantzaleak bizi ziren.



---

### Algortako hareharriak

Ereaga hondartzako eta Portu Zaharreko zonan dagoen azaleratze honetan, karbonatozko hareharrien geruza indartsuak ikusten dira, kolore horikoak, Eozeno garaikoak (orain dela 50 milioi urte inguru). Azal burdintsuak inguraturiko hutsune esferiko ugari daude. Hutsune edo taffoni horien eraketa, izan ere, burdina-oxidoekin osaturiko nodulu-hareharriak egotearen ondoriozkoa da; oxido horiek, elementuen mende jartzen direnean, higatu egiten dira, burdina-mineralen oxidazio azkarraren eraginez.



### Arrigunako zementuzko hondartza

Hondartza honetan hareazko zona handiak daude, eta horietan, aleen artean kaltzio-karbonatoa erortzearen eraginez, zementu eraketa indartsua sortu da; horrek finkaturiko haitzaren ezaugarriak eman ditu. Fosilizazio artifizial berezi horren zergatia, dirudienez, karbonato eduki handiko galdaketako zepen isurketa da (Labe Garaietan 1901etik aurrera egindako galdaketa, Abraren badiaren ahoan).



---

### Aixerrota

Galeako labarreko eremu batean dago, Arrigunaga hondartzaren goialdean; 1726an eta 1727an eraiki zuten, XVIII. mendean Jaureerrian eragin handia izan zuen lehorte baten ondorioz. Ez dago jatorrizko makineriaren elementurik, eta oraingo sabaia eta gurutze finkoak 1956ko berrikuntzan jarri ziren (ez dira inondik inora ere jatorrizkoak). Berrikuntza horretan, halaber, orain erantsita dagoen eraikina ere gehitu zen, eta horrek turismo eta jatetxe funtzioa dauka.



---

### Printzearen Gaztelua edo Galeako Gotorlekua

Galeako labarraren ertzean dago; XVIII. mendeko gotorlekuaren adibide interesgarria eta Bizkaian mende horretako artean kontserbatu den bakarra da (kontserbazio egoera onargarria). 1742an hasi ziren eraikitzen, Bilboko portuko merkataritza trafikoa babesteko. XIX. mende amaieratik, itsasargia izan zen, harik eta oraingoarekin ordeztu arte, eta orduan, bertan behera utzita gelditu zen. Orain dela urte batzuk ez da erabiltzen, baina laster, arkeologo talde batek garbitu egingo du, eta, horren emaitzaren arabera, eraikinak etorkizunean izango duen erabilera erabakiko da.



### **Galeako sinklinala eta marearteko zabalgunea**

Sinklinala eskualdeko gorabehera geologikorik garrantzitsua da; bertan, argi eta garbi ikusten da geruzen arteko konbergentzia, La Galearen alde batean eta bestean (sinklinalaren behaketa osoa itsasotik soilik egin daiteke). Itsasoaren azken erregresioan sorturiko marearteko plataforma erlieberik gabeko lautada leuna da, eta kostaldeko labarretatik barrualderantz hedatzen da.



---

### **Ikuspegi panoramikoak**

Galeako zonako labarrak, Aixerrrotatik izen bereko muturreraino, behatoki bikainak dira Abrarantz nahiz kostalderantz, alde batetik Kantabriarantz eta bestetik Gorlizeko itsasargirantz zein kostaldeko mendietarantz.



---

### **Gorrondatxe-Azkorriko zementuzko hondartza**

Getxoko hondartzen artean, sarbiderik txarrena duena da, baina garbiena ere bada; izan ere, 2005ean Bandera Urdina lortu zuen. Itxura basatiko hondartza honetan, hareazko zona zabalak daude eta, horietan, kaltziozko karbonatuaren prezipitazioak (aleen artean) zementatze handia sortu du; horrela, aleei finkaturiko haitzaren ezaugarriak eman dizkie. Fosilizazio artifizial berezi horren zergatia, dirudienez, karbonato eduki handiko galdaketako zepin isurketa da (Labe Garaietan 1901etik aurrera egindako galdaketa, Abraren badiaren ahoan).





### **Burdinazko gerrikoaren aztarnak**

Bilbo Gerra Zibilean defendatzeko, gotorlekuak eraiki ziren Plentziatik Galdakaora eta Galdakaotik Zierbenara, hiriburua, industrialdea eta portua babesteko, eta lan horri Burdinazko Gerrikoa izena jarri zioten. Unbetik itsasorako zona gerrikoaren Ekialdeko Sektorea zen; hori, berriz, bi lubaki lerrok eta hormigoizko eraikuntza batzuek (esate baterako, Azkorriko bunkerra) osatzen zuten.



### **Barinatxe hondartza**

Hondartza hau handiena da, eremuaren azalera aintzat hartuta, eta Getxo eta Sopelana udalerriek partekatzen dute. Ur indartsuko eta korrante arriskutsuko hondartza da, eta surfariek oso gogoko izaten dute. Alboetan nudismoa egiten da eta, urtero, lasterketa nudista bat egiten dute.



### **Arrieta eta Atxabiribil hondartzak**

Sopelana udalerriko bi hondartza hauek bat egiten dute itsasbeheran, eta horrela, azalera handia sortzen dute. Biek ere Europako Komunitatearen onarpena lortu dute eta Bandera Urdina eman diete zenbait udatan.



### **Itsasoko hegaztien fauna**

Ibilbidean, labarren zona honetan bizi diren hegaztiak ikusiko ditugu; esaterako, antxeta mokogorria, kaio hausgara edo ubarroi mottoduna.

## **EKIPAMENDUAK**

### **Aparkalekua**

Aparkalekuak daude Portu Zaharrea (Arrigunaga ondoan), Aixerrota, La Galean, Azkorrin eta Barinatxe nahiz Arrietara hondartzen goialdean (Sopelana).



### **Hurren jolasak**

Hurren jolasekin ekipaturiko zona bat dago Aixerrota ondoan.

## ZERBITZUAK

### Ostatua

Getxon "hotel txiki xarmangarriak" daude; izan ere, izen hori ematen zaie hoteltzat birgaituriko arkitektura ederreko luxuzko etxeetan edo jauregitxoetan kokaturik daudelako. Ostatuak ere badira. Getxoko turismo bulegoak dohainik egiten du erreserba, aukeraturiko hotelean edo ostatuan. Sopelanan, hotel batzuk ez ezik, kanpina ere badago, Atxabiribil hondartzaren ondoan.

---

### Tabernak eta jatetxeak

Portu Zaharreko zonan pintxodun tabernen eta jatetxeen eskaintza handia dago. Gainera, Aixerrrotari erantsitako eraikinean, Cubita jatetxea dago. Halaber, Larrabasterra auzoan ere tabernak eta jatetxeak daude.

---

### Turismo bulegoa

Ereaga hondartzan dago (z/g); erreserbetarako doako zerbitzua dauka eta, gainera, zenbait programari buruzko informazioa eskaintzen du: irteerak belaontziz, gidaturiko bisitaldiak taxiz, asteburuko abentura edo kultur egonaldiak. Sopelanan ere turismo bulegoa dago Udaletxean.

---

### Garraio publikoa

Getxo ondo komunikaturik dago garraio publikoaren bidez; izan ere metroak sei geraleku ditu eta autobusa ere zenbait lekutan gelditzen da. Ibilbidetik hurbilen dauden geralekuak Neguri (Ereaga hondartzara), Algorta (Portu Zaharrera) eta Bidezabal (Aixerrotara eta Andra Marira) dira. Metroak bi geraleku ditu Sopelanan, eta autobusak ere zenbait geraleku ditu; ibilbidetik hurbilen dagoena metroak Larrabasterran duen geralekua da.

---

## OHARRAK

Ibilbidea orain ez dago seinaleztaturik, baina trazatua jarraitzea oso erraza da, labarraren ertzetik doanez begien bistakoa baita. Komenigarria da adierazitako norabidean egitea, Larrabasterrako geltokiaren eta Sopelanako hondartzen arteko desnibela saihesteko. Ibilbide lineala egin ondoren, bide beretik itzul daiteke, edo bestela, Larrabasterran metroa edo autobusa hartuko dugu, ostera ere Portu Zaharrera etortzeko.